

2026 Karnabas

BASAURI
OTSAILAK
13-17




BASAURI

MOZORRO-JANTZIEN LEHIAKETA OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

Basauriko Udalak mozorro-jantzien lehiaketa antolatu du FAMILIAK, HAURRAK eta SENIORRAK kategorietan.

01 FAMILIEN MOZORRO-JANTZIEN LEHIAKETA - OTSAILAK 14, LARUNBATA

Kategoriak:

- 2-8 kideko taldeak.
- 9 kide edo gehiagoko taldeak.

Behin izena emanda, ez da onartuko taldekideen kopurua aldatzea baldin eta horrek kategoria aldatzea badakar, hau da: 9 kide edo gehiagoko kategorian izena eman eta desfilea 8 kide edo gutxiago agertzen badira, taldea kanporatua izango da automatikoki.

Izena emateko: Otsailaren 2tik 13ra, Kultura Atalean (Bidearte 10), astelehenetik ostiralera (08:00-14:00). **Otsailaren 14an**, Solobarria plazan horretarako jarriko den postuan (11:30 - 13:30).

Izena emateko datuak: Taldearen izena, zenbat kide dituen, mozorroaren gaia eta ordezkariaren datuak (izena, NANa, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa).

Parte-hartzaileak elkartzea: Social Antzokiaren inguruetan (elizako plazan eta San Fausto plazan), 17:45ean.

Euria bada, lehiaketan parte hartuko duten talde bakoitzeko ordezkari bat egon beharko da elkartzeko finkatutako tokian. Guztien artean erabakiko dute desfilearekin aurrera egin, ala Solobarriako karpara eraman; bigarrenaren alde egiten badute, 19:00etan hasiko da ekitaldia.

Hurrenkeraren oholtxoak jasotzea: Antolakuntzako kide batek banatuko ditu desfilea hasi aurretik, otsailaren 14ean bertan (larunbata).

Sariak:

2-8 KIDEKO TALDEAK		9 KIDE EDO GEHIAGOKO TALDEAK	
1. SARIA	550	1. SARIA	750
2. SARIA	400	2. SARIA	500
3. SARIA	200	3. SARIA	250
		INAUTXO	550

Sariak Solobarrian banatuko dira, horretarako jarritako karpan, otsailaren 14an bertan, 20:30etan, ekitaldiko musika emanaldiarekin batera.

02 HAURREN MOZORRO-JANTZIEN LEHIAKETA (14 URTE ARTE). OTSAILAK 17, ASTEARTEA

Kategoriak:

- Banakoak eta 2-3 kideko taldeak.
- 4 kide edo gehiagoko taldeak.

Izena emateko: Otsailaren 2tik 13ra, Kultura Atalean (Bidearte 10), astelehenetik ostiralera (08:00-14:00). **Otsailaren 17an**, Solobarria plazan horretarako jarriko den etxolan, (15:30-17:30).

Familien lehiaketan mozorro berberarekin parte hartu dutenek honetan apuntatzeko izen, datu eta arduradun bera erabili beharko dituzte. Horrela egin ezean, lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Izena emateko datuak: Taldearen izena, zenbat kide dituen, mozorroaren gaia eta ordezkariaren datuak (izena, NANa, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa).

Sariak: HAURREN LEHIAKETAko sariak Basauriko denda-multzo batean TRUKATZEKO TXARTELAK izango dira. Txartel horiek, gehienez ere, lehiaketaren egunetik hilabeteko epean gastatu beharko dira.

BANAKAKOA, 2-3 KIDEKO TALDEAK		4 KIDE EDO GEHIAGOKO TALDEAK	
INAUTXO SARIA (*)	200€	INAUTXO SARIA (*)	300€
1. SARIA	200€	1. SARIA	300€
2. SARIA	100€	2. SARIA	200€
3. SARIA	50€	3. SARIA	100€

* Familien lehiaketan (Otsailak 14, larunbata) mozorro berberarekin parte hartu duten hurrek ezingo dute INAUTXO saria eskuratu.

03 SENIORREN MOZORRO-JANTZIEN LEHIAKETA OTSAILAK 14, LARUNBATA

Deskribapena: Soloarte Eskolan egingo den dantzaldian zehar izango da.

Izena emateko: otsailaren 14an (larunbata) 18:00etatik 18:30era.

Sariak:

1. SARIA	250€	2. SARIA	150€	2. SARIA	100€
----------	------	----------	------	----------	------

04 OSTALARITZA ETA MERKATARITZAKO LEHIAKETA. ONDOEN APAINDUTAKO ESTABLEZIMENDUA

ZABALIK

Deskribapena: Udalerriko ostalaritza edo merkataritza establezimenduek lehiaketan parte hartu ahal izateko, erakusleihoak edota lokalaren barrualdea girotu eta atundu beharko dute. Otsailaren 9tik 17ra (biak barne). Baldintza hori betetzen ez duten establezimenduak lehiaketatik kanpoan geratuko dira automatikoki.

Izena emateko: urtarilaren 29tik otsailaren 9ra.

Kultura Atalean (Bidearte 10), astelehenetik ostiralera (08:00-14:00) edo posta elektronikoz, cultura@basauri.eus edo info@basaurikomerkatariak.com helbideetara. Ez da izen-ematerik onartuko epe horretatik kanpo.

Inskripzioak honako datu hauek jaso beharko ditu:

- Lehiaketan parte hartu nahi dela berariaz adieraztea.
- Parte hartzen duen ostalaritzako saltokiaren edo lokalaren izena.
- Ordezkararen datuak (izen-abizenak, NAN, harremanetarako posta-helbidea, telefono-zenbakia, posta elektronikoko kontua).

Sariak:

Irabazleek (3, merkataritza-kategorian; eta beste 3, ostalaritza-kategorian) diploma bana jasoko dute, eta Karnabasen hurrengo edizioa sustatzeko irudia izan ahalko dira.

Sari-banaketa Solobarria plazan horretarako prestatutako karpan egingo da, **otsailaren 17an, 20:30ean**, musika-emanaldian zehar.



Karnabas

PROGRAMAZIOA

OTSAILAK 13, OSTIRALA

19:30-21:00 "AFRO SOUND SYSTEM"
kalejira musikala oinezkoen kaltetan zehar.


OTSAILAK 14, LARUNBATA

12:00 Edurre Dantza Taldearen inauterietako kalejira. Irteera Fernando Barkin kaletik eta geldialdia Begoñako Andra Marin kalean Bigarren geldialdia San Isidro plazan. Jaitsiera oinezkoen kaleetatik eta azken geldialdia Galizia Kalean.

12:00 Basauritar Dantza Taldearen inauterietako kalejira. Irteera Azaroaren 25. plazatik. Oinezkoen kaleetan zehar Begoñako Andra Mari kaleraino; han, geldialdia. Amaiera Solobarria plazan, beste emanaldi batekin (euria eginez gero, ekitaldi osoa Solobarriako karpan egingo da).

17:45 Desfileko parte-hartzaileak elkartzea Social Antzokiaren inguruetan. Antolakuntzako kide batek, desfilea hasi baino apur bat lehenago, oholtxo bat emango dio talde bakoitzari, izena ematean egokitu zitzaion zenbakiarekin. Oholtxoak berdeak izango dira 2-8 kide dituzten taldeentzat, eta gorriak 9 kideetik gorakoentzat. Oholtxoak ikusle eta epaimahiakideek (ibildide osoan sakabanatuta) ondo ikusteko moduan eraman beharko dituzte.

18:30 Inautxoren agurra Social Antzokiko balkoi korritutik, eta desfilearen hasiera. Ibilbidea: Kale Nagusia, Nafarroa, Begoñako



Andra Mari, Kale Nagusia, Goikosoloa eta Solobarria plazara sartzea.

Desfileak hiru zati izango ditu:

Lehenengo zatia: karrozak (lehiaketatik kanpo).

Lehenengo karrozan INAUTOXO joango da, Basauriko Inauteriak iragartzen. Jarraian beste hiru karroza, bakoitza gai baten arabera apaindua, eta horien atzetik haur-talde bat, koreografiak egiten.

Bigarren zatia: lehiaketarako desfilea

Izena emandako taldeek desfileatuko dute, beren zenbakiaren hurrenkerari jarraituta, bakoitzak jasotako oholtxoa daramala. Garrantzitsua da oholtxoak ikusgai eramatea, epaimahaiko kideek talde bakoitza identifikatu eta behar bezala baloratu dezaten. Lehenengo joango dira 2-8 kideko taldeak (kolore berdea) eta 9tik gorakoak gero (kolore gorria).

Hirugarren zatia: lehiaketatik kanpoko desfilea.

Lehiaketarako izena eman ez duten guztiek osatuko dute.

Epaimahaia: Horretarako izendatutako epaimahaikideek talde parte-hartzaileen jarraipena egingo dute ibilbidean zehar. 20:00ak aldera banatuko dira familien mozerro-

jantzien lehiaketari eta ostalaritza zein merkataritza establezimenduei dagozkien sariak, Solobarria plazan jarritako karpan.

Euria bada: Euria bada, lehiaketan parte hartuko duten talde bakoitzeko ordezkari bat egon beharko da elkartzeko finkatutako tokian. Guztien artean erabakiko dute desfilearekin aurrera egin, ala Solobarriako karpara eraman; bigarrenaren alde egiten badute, ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Haurren koreografiak Solobarriako karpan egingo dira, 18:30etik aurrera.

20:30 Sariak banatzea eta musika emanaldia **DJ Iker Fernández**en eskutik, **Solobarriako karpan**.

OTSAILAK 15, IGANDEA

12:00 «Basauri Inauterietan 2026» emanaldia **Agintzari Dantza Taldearen** eskutik.

Isteera Ibaigane kaletik, Begoñako Andra Mari, Balendin de Berriotxo, Resurrección Maria de Azkue, Manuela Eiguren, San Isidro plaza, Antonio Fernández kalea eta Solobarria plaza. Amaierako ikuskizuna 13:00etan Solabarriako karpan: pertsonaia, dantzari eta txistulari guztiak arituko dira.

Euria bada, Solobarria plazan izango da emanaldi osoa, 13:00etan.

18:00 "GAUR JAIA" haurrentzako berbera pailasoein ikuskizuna Solobarriako karpan.

19:00-21:00 Karnabaseko Gazte Feria, 12-17 urteko gazteentzat, **DJ-animatzailearekin, Social Antzokian.**

Sarrerak: salmenta antzokiko leihatilan, socialantzokia.eus, www.kutxabank.es eta BBKren orotarako kufkazainetan. Otsailaren 14ra arte: 2 €/15ean bertan: 3 €.

OTSAILAK 17, ASTEARTEA

18:00 Haurren mozerro-lehiaketa, Solobarriako karpan. Sariak banatu eta gero, **txikidiskoteka eta txokolatada.**



KULTUR ETXEA

OTSAILAK 16, ASTELEHENA

Basozelai Gizarte Etxea.

• **17:15-18:00** Makillaje tailerra. 4-10 urteko haurrak.

• **18:00-19:30** Disko dantza Arima Etoa Familiak 4-10 urte bitarteko haurrekin.

Kareaga Kultur Etxea.

• **17:15-18:00** Makillaje tailerra. 4-10 urteko haurrak.

• **18:00-19:30** Disko Txikia Familian 4-10 urte bitarteko haurrak dituzten familiak.

OTSAILAK 17, ASTEARTEA

Ibaiganeko liburutegia.

• **11:00** Ipuin kontalaria eta tailerra **"INAUTERIEKIN GORA TA BEHERA"** 6-9 urteko haurrak.

SAN MIGELGO PILOTALEKUAN OTSAILAK 14, LARUNBATA

• **18:00 Mozerro-txapelketa** eta jaiak: dantzaldia, desfilea, sariak, barreak, musika... Lehiaketan parte hartu nahi duten kuadrillek pilotalekura joan behar dute 17:15ean, izena emateko

OTSAILAK 17, ASTEARTEA

• **17:00-20:00 Puzgarriak** Jolasteko eta ondo pasatzeko tarteak

• **18:00 Txokolate goxo-goxoa**

DESFILERAKO BESTE ARAU BATZUK

- 01 Parte hartu ahal izango dute edozein talde, elkarte edo erakunde motak, eta hala nahi duten herritar guztiek.
- 02 Ekitaldiak ahalik eta arinenak izan daitezen, talde bakoitzak ordezkari bana izendatuko du, ezarritako arauak betetzen direla bermatzeko. Ordezkari hori taldeak elkartzeko tokira joan beharko da, beste taldeetako ordezkariekin batera, erabakitzeko, euria denean, ea desfilea aurrera doan ala ez.
- 03 Gaia, materialak eta prozedura parte-hartzaileen esku geratuko dira. Mozorroen originaltasuna sarituko da. Ezin izango da jarrera homofobo edo xenofoboak sustatzeko publizitate edo erreferentziarik egin, ez eta lengoai, irudi edo eduki sexistarik erabili ere. Gainera, ezingo da, Inauteriak ez diren beste ezer aldarrikatu. Azkenik, debekatuta egongo da alkohol-dun edariak edota tabakoa kontsumitzearen aldeko publizitatea egitea.
- 04 Sari guztiek zerga-atxikipena izango dute, indarreko arautegiaren arabera. Sarien zenbatekoa izen-ematean agertzen den titularrek jasoko dute.
- 05 Debekatuta dago lehiaketan ondoko hauek erabiltzea: animaliak, argizuziak edo sugarra duten objektuak, pirotekniako elementuak, eta motordun elementuak.
- 06 Era berean, talde bakoitzak bere soinu-ekipoa edo horren parekoa eraman ahal izango du, eta tramankulu gorpildun eta motorrik gabeak ere bai. Ikusle asko egongo direnez, eta segurtasuna bermatze aldera, karpara ezin izango da desfilean zehar erabilitako gorpildun tramankulurik sartu. Karparen inguruetan toki bat atonduko da, tramankulu horiek uzteko.
- 07 Lehiaketa guztietan epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, uste badu ez dela behar besteko kalitate-maila lortu.
- 08 Aipatutako lehiaketetan parte hartzeak baldintza hauek guztiak erabat onartzea dakar. Antolatzaileei dagokie arauon interpretazioari buruzko edozein zalantza argitzea, eta haiek ebatzitzakoa behin betikoa eta apelaezina izango da.
- 09 Desfilean parte hartzen dutenek jaramon egin beharko diete udal-langileek, une oro, emandako argibideei, desfilea arazorik gabe eta ahalik eta arinen egiteko.